

# Ultzamako euskal testu argitaragabeak

JOSÉ MARÍA SATRÚSTEGUI\*

¶

Une honetan Ultzamako euskara aztertzen diharduten hizkuntzalarien baliagarri eta bertako euskaltzaleen jakinerako, agertu diren euskarazko izkribu batzuen berri eman nahi da hemen.

Bi iturritako gaiak aipatuko dira. Alde batetik, Ilarregi eta Suarbe parroquia bietako liburu eta paperak Iruñera eramatean aurkitutakoak<sup>1</sup>, eta bestetik Larrainzarko parrokian jasoak.

Suarbeko izkribuak XIX. mendekoak dira, bat edo beste XVIII.goa izan daitekeelarik. Ez dira denak idazle berarenak eta, euskarari dagokionez, balaria desberdinetako ereduak azaltzen dira sortan. Paperen artean badago Zarauzko komentuko misiolari batek 1927an kalbarioak eraiki zitueneko agiri bat, eta bertan herriko apaiza zen Basilio Goñi jaunaren sinadura dator. Beronen letra izan daiteke orri batzuetan azaltzen dena. Estellerriko semea zen; Deierriko Azkonan jaio<sup>2</sup> eta Lizarran egin zituen urte eta erdiz gazte denborako gramatika estudioak, 1814ko maiatzean amaituz saioa. Bost urte geroago eta apaiz izan aurretik eskuratu zuen 1819an parrokiako abade izendapena. Elizako liburuetan bere azken bataio-agiria 1855eko otsailaren 21ekoada. Esan daiteke beraz 36 urtez egon zela Ultzaman apaiz.

\* Euskaltzaindia.

1. Arch. Gen. Pamplona. Ilarregi eta Suarbeko artxiboa. Kutxa berezia.

2. Arch. Gen. Pamplona. Basilio Goñi apaizaren agiriak. Bataioa: Azkonako parrokian 1793ko uztailaren 2an (54.or.). Lehen ordenak 1814 eta 1819an. Apaiz 1820an. Azkonako abade izendapena 1819an.

Bilduma honetako zazpi izkribuetatik bat behintzat Erroibarkoa da, adibidez Mezkiritzen adinekoek egiten duten euskararen antzekoa, eta beste bat berriz Esteribarko Larrasoñañan emana, urtean zehar herrian hildakoen aipamena egiten baitu. Bada zalantzak sortzen dituenik ere. Horrelakoak saihes-turik, Ultzamakoak izan litezkeen ereduak aukeratu dira lan honetan.

Lehen atala, “*Cum intraret Jesus...*” (1-144) hitzekin hasten da eta bailaren ekialdeko euskalkien kutsua badu. Aditzaren iragana azken letra *n* gabe erabiltzen du, hala nola, *enpleacen zue* (20), *erraten nue* (41), *galdu çute* (46) e.a. Lanbide aldetik ere mahasti tokietako aipamena egiten du, “*yguitan, el-cietan eta mendiman*” aizu dela igandetako lana gogoratzean (75). Elizako aginduetan orohar horrela ezarritako araua izan daiteke.

Suarbeko bigarren sermoia (145-211) “*Ductus est Jesus...*” ebangelioko hitzekin hasten da eta ekialdeko aditz-forma iraganaren azken letra galtzerik ez da nabarmentzen. Euskalkien mugako bikoitzasuna liteke. Grafia aldetik frikariaren *-tc-* letra bikoitza erabiltzen du idazleak: *esplicatcea* (146), *manatcen* (148) e.a. *Christio* hitza biek berdin idazten dute. *Echeco chucandrea* esa-era azpimarra daiteke hiztegiko berezitasunetan.

Hirugarren zatiska (212-244) izkribu luzeago baten orri soltea dateke. Beste biek ez bezala, aditz laguntzailea *h* letrarekin idatzirik ematen du: *hizanican* (216), *hizanen* (218), *hizandu cen* (235). Frikaria ez du beti bikoizten: *senticen* (231); *ofenditcen enpleacen* (213). Era berean *tz* eta *ts* letrak ematen ditu: *quejatzen* (227), *itzcuntza* (237), *gorputza* (215, 229, 243) eta *aberats* (222).

Kontuan hartzeko da lehenbiziko idazkian *abreac* (108) aipatzen dena.

Suarbeko bildumatik aukeratutako testuak hauek dira.

*Cum intraret Jesus in Domum cuiusdam Principis Phariseorum sabato, manducare Panem, et ipsi obserbabant eum* Luc. Cap. 14.

1. Azqueneco Minerban explicatu niote cebat respeto eta reverenciarequin eterri bear duten elizaza<sup>3</sup> sandura, eta nola bear duten onrratu gorpuzarequin eta arimarequin Sacramental turic arquicen den gueren Criazoleau; eta egun arrasaldean explicatuco diotet brevequi nola bear dituzten guardatu Jaiac eta Igandeac, cerengatic descansacea gorpuza Jaietan, eta empleacea arima Jangoicoaren cerbizu sanduan pertenecizen zaio Jangoicoaren onrrai, beña beldur /10/ naiz catholico maiteac sucedituco zaioten antiguzco pintore bateri gertacen cizaiona; contacen da cela antiguedaden Pintore bat, Pintore au

3. Elizaza. *Eliza* izango da.

artu gave ongui olaren, edo misearen neurria  
asten ce pintacen onetaic, eta pintura gu-  
ciac acabacen cizaionean misea, gueldizen  
cizaizquio bururic gave, ncedadea andia ce  
catholicoac Pintore onena, cerengatic considera-  
tu gave, burua dela gauzaric principalena,  
empleacen zue dembora gucia gorpuzaren /20/  
pintacen, eta acabacen cizaionean dembora  
gueldicen cizaizquio pintura guciac bururic  
gave.

2. Necedade au berau guertacen da egungo egunean cembait christioren artean, mundu  
ontan Jangoico omnipotenteac eman ditigun  
cuidado guciac reducicen dire bidatara

billacea gueren izerdie<sup>4</sup> gorpuzaren sustentua, eta  
adornacea, edo pintacea gueren arimac Jangoicoaren  
gracia sanduaz guardacearequin arren Mandamentu  
Sanduac, Arima da catholicoac gorpuzaren burua: /30/  
billaceco gorpuzaren sustentua edo adornua señalatu-  
ric dauzqui Jangoico omnipotenteac astean sei egun,  
eta arimarendaco Jaiac, eta Igandeac; eta çuec catholi-  
coac Mundu ontaco pintoreac, nondic asten zarate  
pintacen edo adornacen, claro dago nere christio fie(l)ac,  
asten zaratela oñetaic, cuen cuidadoac, çuen desbeloac  
eta afan guciac ondasunetan, eta aciendetan, guciac  
dirade gorpuzarendaco, eta Arimarendaco noiz billatu  
bear dugu Jangoicoaren gracia? nioiz ez, cerengatic ezta ya  
ez Iganderic eta Jaic ongui guardacen duenic, arenga- /40/  
tic erraten nue guertacen zaiotela Antiguoco Pintore-  
ari gertazen cizaiona, mundu ontaco dembora gucia  
pasacen zaiote gorpuzari correspondicen zaizquioten  
cuidadoetan, eta afanetan, eta Erioceac acabacen diote-  
nean mundu ontaco vicia, arquicen tuzte beren obra  
guciac bururic gave, diot, arimariac gave, cerengatic  
arima galdu cute becatu mortala dela medio.

3. Bi gauza manacen gaitu irugarren Jangoicoaren Leguesco  
mandamentu Sanduac, lembisicoa da meza osoric  
enzutea, eta bigarrena ez trabajacea. Trabaju bacuec /50/  
dirade comunac, berce bacuc liberalac, eta bercea serbilac.  
Explicatuco naiz claroago, badire trabaju bazuc, ceñe-  
tan entendimentuac gueiago trabajatu bear baitu, gor-  
puzac baño, nola den estudiacea, escrivicea etc.

4. *Izerdie. Izerdiç* izan behar luke.

ebec licto dire Jaietan. Berce trabaju bazuc dirade ceñetan gueiago trabajatu bear baitu gorpuzac entendimentuac beño, necariaren oficio gueienac diraden bezala, ebec eztirade lizito Jaietan trabajacen badire. Jai egunean dembora anicez eta necesidaderic gave izanen da becatu mor- /60/ tale, trabajacen badire gutic becatu beniale.

Autore gueienec erraten dute trabajacea Jai egunean ordu bat, edo ordu bat eta erdi dela becatu venialea balin badu cerbait necesidade, baña balin badu necesidade, eztela becatu; berce autore baçuec diote bi orduz trabajatu daitequela izan ezquieroz necesidade; trabajacea gueiago da becatu mortale.

4. Adi bezate orai noiz trabajatu daiteçquen Jaietan becatuaren belduric gave. Obispo Jaunac ematen duenean licencia, edo errico Apez gaunac icusten duene- /70/ an dela necesidade, eta eztela demboraric acudiceco Obispo Jaunarengana. Trabajacen direnean eliza pobre cembaitendaco; dagolaric costumbre legitimo bat fundaturic arracioarequin, costumbre au dela medio trabajatu daitezque Yguitan, Elcietan eta Mendiman cerengatic ezaguturic eliza Ama Sanduac Necazariaren urte gucico Trabajua gal daitequela egun batez, permiticen du trabajacea egun ebetan; trabajatu daiteque berce cembait demboretan /80/ socorriceagatic bere necesidada, edo proximoarena, baña ezpalimbadu necesidaderic, trabajacea bi ordu beño gueiago beti da becatu mortal.

5. Eta cer necesidade uste ducie catholicoac bear dela trabajaceco Jai egunean? uste ducie asqui dela çuec erraten ducien necesidada? ez por cierto, bear da necesidade estremoa, nai du erran, balimbada persona pobrea eztuena cer jan, edo cerequin mantenatu bere familia au trabajatu daiteque Jaietan, eta igandetan, beña ezpalimbadu ain necesidade graveric eguien du /90/ becatu mortale trabajacen denac, edo trabajaraci. Eztut erraten orai eztaitequela trabajatu Yguitetan, Elcietan eta Mendiman, Santiago Egunaz, eta amavirgina Aguztuco egunaz landara, ebetan Aberasac eta Pobreac guciac trabajatu daitezque, berce demboretan, solo erran dudan necesidada pa-

decicen dutenac trabajatu daitezque licitoqui, beña necesidate au padecicen eztutenac egunen dute beca-  
tu erran dudan bezala.

6. Considera zacie orai nere /100/  
Christio fielac atencioquin ia beti trabajatu za-  
raten erran dudan necesidadearequin, edo ce-  
ren ambicione gaistoarequin, cemba aldiz tra-  
bajatu zate, edo trabajajaracitucie Mutillac Jain egu-  
nean, asteco edocein egunez eguin ceitequen la-  
nean? cemba aldiz trabajatu zarate cerengatic  
berceac icustentucien trabajacen, batere berce ne-  
cesidaderic gave, cemba aldiz bialituçu çuc Abre-  
ac cargaturic Jaiegunean, consideratu gave, solo  
mandazaien oficioarequin bizi direnac dabilaquela /110/  
Mando cargatuequin, Jai egunean, consideratu ga-  
ve zuen Mutillac galcen balinbadu Meza Sandua

zueri escatuco diciela contu erchia Jangoico  
omnipotenteac; consideratu gave Jaiac eta  
Igandeac, daudela destinaturic empleaceco  
christio fiel guciec Jangoicoaren cerbizu  
sanduan, eta finalmente advertitu gave  
aniz christioc esperimentatu dituzten cas-  
tigo visibleac, cerengatic ezçuten eguiten  
casoric guardaceaz Jaiac, eta Igandeac, çueta- /120/  
tic cembaitec bezala, eta esperimentatu  
dituztem premioac guardaceaz ongui Jaiac  
christio fiel guciec obligacio duten bezala.

7. Jangoicoaren  
Mc. executatu dituen castiguac Jaietan tra-  
bajatu direnen contra; contacen du Beloacensec  
exemplo au etc. (los dos: y el del Peregrino).  
Ala castigacen ditu mundu ontan christio  
gaistoac contentacen direnac solo meza bat  
enzutearequi eta acaso ura ere prisaca edo  
bearbada lotan pasacen duela mezaren erdia /130/  
gañara dembora gucia empleacen dutela afana-  
turic beren lanetan bereala acabatu bear duen  
bezala mundu guciac; eta baldin ezpaditucie<sup>5</sup>  
beldur naiz C[ristioa]c frutu guti ateraco dudala gaur  
arrasaldeco platican, bada beldur naiz burla-  
taco artu dituciela nic erraten ditudan gau-

5. *Eta baldin ezpaditucie.* Hitz harrek marraz ezabaturik daude.

zac, beña baldin ezpaucie aditu nai nic erraten dudana, adizacie siquiera nola quexa<sup>6</sup>

Xtorem. Ma. icusiric zuen ambicione gaistoa, icusiric cerbizatu bearrean Jai egunetan Jangoico- /140/ aren Ma. ofendicen duciela, eta lograto bearean arren gracia Sandua, ofendicen duciela ceren trabajaceco costumbre madaricaturequin: dio Xm. Mac. aborrecientuela cuen Jaiac, eta festividadeac.

\* \* \* \* \*

*Ductus est Jesus a spiritu in Desertum, ut tentatur a Diabolo*

Mundu miserable ontan diren trabaju desdicha eta miserie gucien erteau, ezta bat siquiera mereci duenic esplicat-cea odolezco negarrequin, nola cembait christioren confesat-ceco modua, manatcen dituenean Eliza Ama Sanduac; bada, atras gueroztic Jangoicoaren beldurtasun sanduan bici diren cembait persona, berce guiac allegatcen dire gaiz- /150/ qui preparaturic Sacramentu sandu ontara; examinatu gave ongui beren concienciac, dolore eta urriumenturic ga-ve, eta propositu firmeric gave; eta ontatic cer seguitcen da?, ontatic seguitcen da, bereala confesatu eta comecatu orduco izulcea lenagoco becatuetara, edo andiagocoac eguitera, edo zacurra bezala lenago vomitatu cituen janarien jatera; au da eguitea desprecio andi bat Jangoicoaz, Eliza Ama Sanduaz Elizaco ministroeza, eta Sacramentu Sanduez, eta iduri dute dabilzala chostaquetan Jangoicoarequi urteoro, escatcen diote ebek barcacio beren becatues, ofrecitcen dutela emendatuko direla /160/ alcina, eta izuli orduco burua berce aldera, izulcen dire lena-goco becatuetara, edo andiagocoac eguitera.

Becatari ebek me-regitun caztigoa da Jangoicoac mundu ontan eman deza-quen andiena, eta da uztea dabilzala beren becatuetan, eta costume gaiztoetan erioceco orduraño; eta orduan sucedit-tuco zaioete, secula penitenciaric eguin eztuenari suceditcen zaiona, bada eben fina regularqui, beren obren arabera (er raten duen bezala San Pabloc), arengatic quegatcen C.M. Profeta Sanduaren agos, erraten duela; becatari ebek eztire beinere combertitu neregana viozarequi, beizic guezurrarequin deicen /170/ du emen guezurra, penitencia edo confesio falsoa edo apa-rentea, iduri zaiote engañatcen dutela Jangoicoa, beña engaña-

6. *Quexaçen den esan nahi ote du?*

cen dituz(te) beren buruac, bada guelditzen dire confesioaren frutu-a gave, cein baita Jangoicoaren gracia eta balimbada

cinezqui Jangoicoarengana combertitu nai duenic, gozatceco guero eter *didade* gucian Ceruan, jaquin bear du ez tirela bi bide beiciq cerura joateco, bata inocenciaco bidea, eta bercea penitenciarena; bataiatu ondoan egunes gueroz becatu, eztaiteque niorere joan Cerura inocenciaco bideas, gueroztic preciso da joatea Cerura penitencia dela medio, au da confesio ombat dela /180/ medio.

Eta izanic gauza au ain ciertoa arracio da, nere chris-tio fielac, iduqui dizagun ongui gueren memorian, confesio onaren eguiteco necesario diren gauzac, cein baitire examinat-cea bere conciencia, au da oroitza ongui bere becatues; formatcea damu eta urriquimentu Jangoicoaren ofendituas, eguitea pro-pos(i)tu firme bat eztuela beriz ofenditu bear Jn. Ma. confesatcea ongui bere becatuac, eta cumplitu confesoreac ematen dion pe-nitencia; borz gauza ebetatic lembizicoa da oroicea bat ongui bere becatues, errepasatzen tuela Jangoicoaren Legezco Mandamentu sanduac, Elizaco borzac, zazpi becatu mortalac, eta obra mise- /190/ (ri)cordiazcoac, eta icusi cer mandamenturen contra cer becatu eguin duen; artu ondoan bear den dembora, au da dembora aniz badu ez tela confesatu, dembora gueiago, *baiz* confesatzen bada gutia-go; eta escatu ondoan Jangoico soberanoari, bear duen arguia ongui ezauceco bere becatuac, consideratu bear ditu Manda-mentu bacoicean iru gauza, lembisicoa becatuaren grave-dadea, au da, ia den mortala edo veniala; bigarrena becatuen numeroa, ia cemba diren; eta irugarrena becatuaren cir-cunstanciac; modu ontan vigaren mandamentuan balimba becatua, ya maldicio edo blasfemiac, botatu dition aitari edo Amari, Nau- /200/ siari, edo echecho chucandreami, Jangoicoaren ministroeri seigarren mandamentuan balinbadu becatua, dela izez, dese-os, edo obras, ia diren aidearequin, ezconduarequi, edo per-sona consagratuarequi; gauza ebisia, edo consentitua bada, ia den consagratura, edo Elizatic ebasia; modo ontan bear (du) oroitu becatariac bere becatues, eta ezpaditu eguiten diligen-cia ebec, ezta izen penitencia verdadero, beciq falsoa, ezta izanen confesioa, beciq sacrilegioa; beña naibadu vioces con-vertitu Jangoicoarengana, eta eguiten badu bere aldetik posible dena, eguienen du confesio ona, barcatuco ditio J.Mc. orduraño /210/ eguien dituen becatuac, eta conseguituko du arren gra. Avemaria.

\* \* \* \* \*

Baña jaquin bezate mi gaistoa dutenec, beren miac Jangoicoa ofenditzen empleatzen dituzte-

nec, torm(en)tu icaragarriac padecitu bear dituztela Infernuan. Erran banez nic gañeraco gorputzaren partetan condenatuec padecitcen dituzten tormentuac hizanican ain andiac, ezbalire bezala direla comparaturic beren mietan padecitcen dituzten tormentuequin, elitzaque hizanen ponderacio escesiboa, ez eta ere lentabikicoa au erran duena.

Adi dezagun gueren escarmentutaco, eta probechutaco cer /220/ dion condenatuetatic batec. Cegon erretcen, quisquilcen, abrasatcen, evangelioco Guizon aberats condenatu ura. *Cum eset in tormentis*. Eta da gauza admiratcecoa, solo escacezan erre medio, escatu zuen bezala, mian padecitcen zuen tormentuerendaco, *ur refrigeret linguam meam* Infeliz eta desbenturatu onec padecicen cituen ango tormentuac sentido gucietan, asi oñetatic eta bururaño cegon su gar eguinic, eta solo quejatzen da, solo escatcen du erremedio mian padecitcen duen tormentuerendaco, gañeraco gorputzaren parte guiac sutil libre baleuzque bezala; ala dio San Pedro Chrysologoc. *Quasi reliquum corpus /230/ ab incendio haberet immune*.

Cerengatic senticen ote zuen desbenturatu arrec amberce bere mian padecitcen zuen tormentua? Ceren zuen mi gaistoa dio San Pedro Chrysologoc. *Lingua quae maldissit. Lingua quae pauperis blasphemavit authorem*.

Empleatu zuen miserable arrec mundu ontan vici hizandu cen vitarteo bere mia maldiciotan, blasfemietan, murmuraciontan, desonestidadesco platiquetan, eta berce itzcuntza gaistoeitan, eta orrengatic esperimentatcen zuen eta padecitcen zuen mian ain tormentu andia; bada Jangoicoaren Magestadeac eman dio bapedrari mia arren Magestadearen alabancetan empleatceco, eta arla mi ayec cein empleatcen baitire /240/ ez Jangoicoa alabatcen baicic arren Magestadea ofendenten, castigatcen ditu Infernuan tormentu ain icaragarriarequin, ain su terriblearequin, ecic gañeraco gorputzaren par-

tetan padecitcen dituzten tormentues atcenduric bezala solo escatcen dute alivio mian padecitcen duten tormentuarendaco. *Quasi reliquum corpus ab incendio haberet immune*.

## II

*Larrainzarko parrokian dagoen eskuizbribuen kopurua handia da. Bataz beste 418 orrialdeko liburukia osatzen dute, gehienak euskaraz daudelarik.*

*Oihal berdeko azal lodiekin josirik dago liburukia eta metal horiko babesak daramatza ertzetan.*

*Izkribuen egilea, Serapio Navarro Senar (1873-1936), Ergoiena-Unanuko semea zen. 1898an sartu zen Larrainzarko elizan artzai, eta 38 urtez egon zen karguan, 1936an hil zen arte.*

*Aurrez egindako beste bilduma bat aipu du Navarro jaunak. Berak baliatu-tako autoreen aipamen zehatza ipintzen du gehienetan.*

*1903ko bi sermoi aukeratu dira eredugarri. Bost urte zaramatzan ordurako herrian eta sorterriko mintzairaren kutsua uzten hasia zukeen bertakoaren mesedetan.*

*Pedro Ezeolaza apaiz lagunari esker izan nuen bildumaren berri, eta balia-tu ditut testuak.*

*Dom. III Quadrag. De sententia mortis contra Christum lata  
Dia 15 de Marzo de 1903*

Edoceíñec pensatucozuen neicozutela J.C. gure Ja. juduayec gueyago maltratatu gabe arren corpuz sagradua, cergicat era lastimagarrian arquizen-zen arren corpuza aimbesteco azotequin, batezere ere buruan paratucioten aranzasco coroyarequin. Presidente Pilatosec ezaguturic aungui J.C. inocencia, ezaguturic alaber ez J.C. culpazubelaco baicican zutelaco envidia audi-ya J.C. procuratuzuen libracea juduayan azaparretatic. Orretaraco aterazen-du /250/ Pilatosec J.C. gure Ja. vere echecho balconabatera an icusteco plazan zouden guciac Jesusen era lastimagarria; icustean gende guciac J.C. figura urriquizeco ta uzteco gueyago castigatugabe arren inocencia. Baño icusizuten unean bertan judioac erraten dio Pilatosi, quenzeco len bai' guizon infame ura, ta emateco ilceco sentencia malhechoreac bezela gurucean. Yru parte dauzca gaurco eracusaldiac. 1. J.Cen. inocencia. 2. Pilatosen sentencia injus-ticias beteriquecoa, ta Juduayen gorrotua J.C.daco, eme(n)dic ateracendugu gaya gure animaren provechuraco. /260/

1. J.C. inocencia ezaguzenzuten denac. Judioac ezaguzen zuten ongui Je-susen inocencia Pariseoac ecin eramanzuten errico yendeac seguizea J.C. pre-dicazen aizen demboran, ta yoanciren bein batez insultazea, ta milla calum-nia erratea J.C. daco vere aurrean, ta J.C. eranzun cien *Quis ex vobis arguet me de peccato?* Non icusi noucie ofendicen nere aita ceruhoa? norei egun diot ofensa den chiquiena ere munduontan? Pariseoayec gorrotos beteric ecin garaituz, ecin contestatuz J.C. etorcenciren beren echera. Vere pasioan ecarrizutenean Getsemanico barazetic eramanzuten Caifasen echera, eta an neizuten principalac falso testimoziobat billetu J.C. contra, ta diyo (270) Evangelioac etorricirela testigo falso auniz, baño comprendizenzutela ecirela eguiyac testigoac erratencituztenac, ta errazqui libratua izeinzela eriozetic. Etorrizirela azquenean bi testigo ta hoc erranzutela. Onec errandu botacoduba Jen. Eliza ta iru egunes trebe dala parazea lenago becin aungui. Bazaqui-

7. Len bai len.

ten ori egunzezaquela J.C. cergatic milagro aundiayac icusicituzten eguiñac J.C. gure Jaunaren gandic, ta apuraturic bezela Judiac ezaquitelaco J.C. cer eguiñ icusiric arren inocencia erratendio Caifasec. Eguiya da zu zarela Jen. semea? Eranzunzen dio J.C. Eguiya da, ta orduen erratendu Caifasec “eztugu testigo bierric Madaricatudu gure Ja. ta leguean dagon bezela (280) ill bierra J. semea dalaco. Ta orduen beren errabian an zoudenac siñistazeco J.C. falta-tuzubela, ematendio batec matrellecobat, ta orduen denac astendire ofendizen ezagutu ondoan zela inocentia.

J.C. inocencia eracustendigu Pilatosec verac, aimbesteko videac ta moduac parazen judioayen aurrean ez castigazeco veren erreguea ta Ja. aimbeste milagru ta obra ona eguincituana.

Eracustendigu J.C. inocencia Pilatosen andriac edo emazteac, cein yoanzen Pilatosengana erratea, amesa izugarribat izanzuela ta padeciyuzuala auniz vere amesartan, ceren ecusizuen vere senarrac emambierzubela J.C. eriotzeco sentencia. /290/

Da testigu J.C. inocenciarena Judas Apostolua ta traidorea ceñi emancioz-queten Judioac 30 diru eracusteagatic goubes non zegoan J.C. ayen azaparreta(n) uziagatic; bada Judasec ezagutuzun cein becatu aundiya eguiñzuen salzean vere Maisua Jesus, ta presentazenda Judien guizon principalenetara, ta an erraten du. Oreiñ ezaguzendut eguinduten becatua, eztut diru bierric, or douzcocie neri emandaco diruac, ta Sacerdoteayec eranzuncien. *Tu videris* or componzeiye, zuc faltatubaduzu, guc eztu culparic, ta orduen urcatuzuen Judasec vere burua baña an ucitizen diruayec gouza sagradua bezela guardatu-cituzten cergatic cen precioa odol santu /300/ ta inocente batena. Denac comprendiyuzuten ezubela J.C. faltabat den chiquirena ere castigazeco.

2. Pilatosec presentatuzubenean J.C. bere balconartan icusteco J.C. miseria ta ez castigazeco eriozaco sentenciarequin obligatzendiote Judioac lembicico aldien bezela ematera illeco sentencia. Emen berriz Pilatosen apuro-ac. Ecustendu aungui J.C.en. paciencie miragarria arren misericordia, arren poderioa, arren virtuteac, ta alaere ezta atrevizen librazea J.C. ecusiric arren garbitasuna. Uztendu J. vere escutic guizon gueiztoau, Presidente gueiztuori, ta etorcenzaiyo orduen demoniua ta adicera ematendio eztubela besce erre-medioric ece condenatu, baño lenago emanbierzaiyola /310/ J.C. deshonraba-aundiayagocoa. Cen costumbria Juduen erteau pazcoetan carcelatic bat libracea Pazcoco demboran; ta arquizenzen bat, guizon guztien erteau gueiztorena ta demoniuac adizera emacion emateco edo eguiteco proposicio-ri erriyari neiotzuen Barrabas ateracea carceletic ta libre uztia edo J.C. castigatu ta gurucian josiric uztia. Cen Barrabas ladrona, gende gucia icaraturic ucizubena carcelan sartu baño lenago, ta content ciran Judio guciac quendubierciotelaco eriotza laster, ta ori jaquiñic Pilatosec ustezun era obre-re-na izangozela ecarcea Barrabas carcelatic ta errigucien aurrean eracustea, berec escogizeco batcen daco edo besciendaco guruceco /320/ eriotza. Baño cer guertatuzen? Ustezuten gueiztoago zela erriyendaco J.C. Barrabas bain-do? bi juicio celebratuciran orduan, ta Barrabas libratua izanduzen ta J.C. condenatua. Auzen humiltasunetan aundirena J.C.: cergatic guruzean cego-

laiq iduquizezaquen malhechorebat bezela, baña emen compareazean Barrabasequin consideranzenzuten malhechorebat baindo gueiztoago. Ceruco glorriaren erreguea humillazenda aimbeste, arcendu aimbesteco paciencia, ta caridadea guretaco. Pilatosec ecusiric ezubela besce erremedioric ece ematea ilzeco sentencia; leizendu balconartatic sentencia izugarriya J.C. eriozarena. Eramateco J.C. malhechoreac ilcenciren /330/ lecura, ta gañera alciñetic bat pregonarequin malhechoretan aundirena ceramatela calvarioco mendira ta quenduric arropa guciac josteco iru illzaquin guruzean ta an uzteco ill artaño, cergatic den blasfemobat, erri engañazalea ta neizubelaco izen Judioen erreguea. Pilatosec emanzuen sentencia, emanzuen gustua emateagatic Judioari, bañio culpa gueiyenac berac cituen, lenic Erromanuen ertean ezen iñor castigazen yaquingabe ongui arrazoīnue ta Pilatosec ezagutuzun J.C. cela inocentia; gañera erromanuac ezagututa ere bat cela malhechorea egonbier zuten amar egun cumpliyugabe emandaco sentencia bada legue guciayec puscaturciyuben Pilatosec bacarric Judioayen gustua cumpliceagatic. /340/

3. Pilatosec ezagutuzuen ongui diyo S.S. embidiya zutela J.C. daco ta orrengatic neiciotela quendu vicitza J.C. *Sciebat enim quod per invidiam etc.* Edoceíñec pensatucozun comparazean Barrabas J.C. libratuscozutela J.C. ta arren llagac laster ungatucoziyuela balsamoquin vere Ama M. Santisimac, ta orduen berein izanguzuela consuelo piscuabat tormentuetan. Escribituristic zegon vere pasioco dembora gucian ezuela piscuabat izambier gure becatuengatic ta ala guertatuzen. Diyo Santubatec Judioayec eguiñzutela animale Elefante deizendanac eguitendun bezela. Elefanteac icustendubenean odol piscua bat colerazendela ta eztela posible sujetacea, ta alaber guertatuzen /350/ Judioquin: icustendute J.C. corpoza maltraturic, artuciyuben azoteaquin vere corpoza odolaturic, arren burutic oraindic odola dariola, eraonetan atezrendu Pilatosec balconara icustendute J.C. odolaz *induraturic*, eztioite uzten minzezen Pilatosi ta erratendio erriyarrec Pilatosi *Crucifige, crucifige eum* Azquenean ecin icusizuten J.C. aurpegquia, cergatic veirezean arren aurpegquia oreizen ciren arrec eguiçiyuen milagruac ta milagro izugarriac; oreizen ciren arrec eracustenzun doctriña garbiya, oreizenciren arrei seguizienten yendeac Ja. zelaco ta embidias beteric... quenzendiote Pilatosi ilceco sentencia: ala diyo S. Crisostomoc *Radix homicidii... invidia.* /360/ Emvidiac aterazuen diyo S. Agustiñec, aterazituen ainguerauac cerutic ta ucicitu en diabruac eguiñic: envidiac aterazuen Adan Paraisotic, envidiarengatic castigatu zuen Jac. vere erriya desiertoan, envidiarengatic salduzuten Jacob semeac veren aneiya José, envidiarengatic sartuzuten Judioac Profeta Daniel leoyeraren lezera, ta envidiac bacarric illdu ta illdezaque Jac. Judioc eguiñzuten bezela.

Beguiria bada cer gaya aterabeardegun gourco sermoyatic.

1. Ycusean J.C. inocencia erran J.C. Jauna ni neiz becatariya, ta neidut garbiyu zure odol santuarequin nere becatua confesioco Sacramentuan, ceren gurezeortan ezta aimbeste sufriyubierric nola zure guruzean. 2. /370/ Ycusean Pilatosen sentencia gueiztoa confesatu J.C. ta E.A. Santuaren doctriña vildurric gabe mundu gucian, eta 3. icusean Judioen envidia, egui-

propositobat speciala becatu izugarriori quenzeco sumezendun unean ber-  
tan, consolazeco J.C. (berezac ta lagun projimuarenzat)<sup>8</sup> amazendugulaic  
gauza guztien gañean arren magestadea, ta lagun projimua gueren burua be-  
zela denoc salvatuac izeteco. Amen.

*S. José  
Dia 19 de Marzo de 1903*

*Qui custos est Domini sui glorificabitur (Prob. 27)*

Jac. disponizenu gauza guciac vere fiñetaraco, orrengatic gauza guciari  
emandio vere inderra, vere virtutea cumplizeco señalazendion fiñarequin.  
Eguzquiac arguizendu ta verozendu, cergatic Jac. paratuzuen verozeco lurra  
ecarceco fruituac guizonaren mantenuraco: S. José, ceñen eguna celebrazen  
/380/ du gour E.A.S. destinatu zuen Jac. izeteco Jesusen guardazalea ta cum-  
plizeco ongui carguuori betezuben Jec. virtute guziaquin, orrengatic deizen-  
da justua, virtute guciac douzqalaco berequin. Garbitasun audiya izenbier-  
zuen duda gabe uquizeco ta ibilzeco verequin Jesusen corpuz sagradua.

Humiltasun audiya izenbierzun duda gabe, soberbian ez erorzezo ya-  
quiñic cela yaya M.S.gandic ez guizonaren virtutez baicican S.S. obraz ta  
virtutez: humiltasun audiya eracusizuen vere destino gloriosuartan, neizu-  
belaiq apartatu vere esposa Mariarengandic cergatic ecen dignua Jen. amare-  
quin vicizeco. Conformaturic S. José Aingueruen izarequin eternidadetic  
/390/ señalaturic zegola guardazeco J.C. semea, mantene emateco M.S. ta  
Jesusi ta librazeco etsei gucietatic, artuzuben gusto audiyaquin ta cumplitu-  
zuben ongui vere encargua. Gloria audiya emacion Jesusec ceruan, ta no-  
lacoa den Santuonen gloria ceruan, ala vere poderioa. Ta Santuac emanbaiz-  
tiquigu (sic) Jac. gure provechuraco ta ez bacarric vere gloriaraco, gour  
icusicodegu gure obligacioa S. José honrazeco icusten dugulaiq dembora be-  
rean Santuonen dignidadea: ta 2. gure confianza S. Joseren baitan<sup>9</sup> honratu-  
dugulaco vicitzan<sup>10</sup> (19 mes de S. José).

1. Daucagu Español guciac gure barnean berotasun piscuabat, ta berota-  
sunaori ezta ilzen, da berotasuna ori devociona M.S. Ezaguzendegu /400/  
gure barnean bazuetan dela errazean erosarioa<sup>11</sup>, dela ofrecizean arren honran  
meza santua, dela errezaezan salvea devociarequin, dela besc(e) obra ombat  
eguitean arren honran, ezaguzen degu diyot gure barnean sentimentuac,  
gouzabat ecin explicatudezaqueguna, ceñequin arzen degu inderrabat audi-  
ya M.S. etsei guciaren contra; ta inderra sentizendutelaco Española guciac,  
ta defendiyudutelaco deshonrac arzen cituenian, deituda ta deizenda gure  
naciona, M.Sena. Ez gara lotsazen besce gouza bazuetan bezela confesazen  
M.S. dignidadea ta emanbierzaiyon honra, ta lenago isuricoguinque gure

8. Ezabaturic marra batekin.

9. Azqueneco orduan zegoen idatzirik. Gainean ipinia da lerro artean. *S. Joseren baitan.*

10. Vicitzan, ezabaturik dago hitz hau.

11. Errezaezan erosarioa.

corpuzeco odol gucia ece uci confesatu ta honratu gabe M.S. dignidadea. Orein bada /410/ M.S. diogun amorioagatic dator gure obligacioa S. José honrazeco. Neidu M.S. guc amazea vere esposo S. José cergatic S. Josec guardatu zuen M.S. honra, guardatuzuen M.S. virginidadea, ta sobre todo salvatu zuen M.S. honra: ta ezpalu izan S. Jose, duda gabe deshonra aundiya artubierzuan M.S. Arrazoiña clara da. Yayozen Jesus M.S. gandic S.S. obraz, ta icustean amabat vere aurrarequin aita gabe, denac pensatubierzuten gueizqui, ta deshonratucozuten M.S. ta Jac. ez icusteatic deshonraori vere amarequin senalatzuben S. José vicizeco M.S. pensazeco Judioac zela Jesus Matrimonaren semea, ta milla esquer emanciozcan M.S. Ji. cergatic orrelaco esposua emacion guardazeco vere honra. (Julio Alarcon 8) Gañera milla esquer emainciozcan Ji. M.S. /420/ cergatic S. Joseren trabajuaquin mantena-zenzuen fameli sagradua. Emen daucagu arrozoñabat honrazeco S. José gloriosua. Oraindic arrazoiñ aundiyyagocoac dauzcagu amazeco S. José. Ycusi degun bezela ezen S. José Jesusen aita siñescoa, cergatic concebitua izanden S. S. obraz, ta virtuez, baña ez orrengatic eciozcan uci emangabe aitabatec, izendechasquen derecho ta facultade guciac. Erratendigu J.C. evangelio-an *Exemplum dedi vobis..* Cristauen obligacioa dala imitacea J.C.; ta eztezaquegu imitatu J.C. imitatu gabe S. José edo honratu gabe S. José. J.C. empleatuzuen vere vicitza /430/ sugetazean S. Joseren gana. *Et erat subditus illis.* Ecen acontentatu J.C. honrazean S. José chiquiya celaiq, baicican honratuzuen vere eriotzaraño. Aitaren autoridadea obedeciyu honratu ta errespetatu zuben J.C. S. José vicituzan dembora gucian. Neibadegu bada honratu ta imitatu J.C. honratu dezagun baita ere S. José (21 Mes de S. José)

Besce arrazoiñabat honrazeco S. José edo ezaguzeco nola gouden S. José honrazea da E.A.S. autoridadea. Aita Santuen obligacioa da cumplizea J.C. encargua emaciona S. Pedro Apostoluari ta arren izenean Aita Sandu guciari, ongi governazeco fundatuzuen Eliza: governacean vere Eliza aita Santuac /440/ denoc daquigu lana ta trabaju aundiyan izeteniyubela: vierdu egunero S.S. asistencia ezaguzera emateco cristau guciari cein den eguiya, ta cein den guezurra cer vide artu viuten, ta cer vide uci bieuten; vierdu valore aundiya errateco J.C. izenean munduco erregue ta emperadore guciai eztabilzen ongi beren doctriña gueiztoquin. J.C. egonduzen bezela Pilatos ta Herodesen aurrean, alaber arquizenda arren izenean aita santua: desprecio aundiyan errecibizen ditu Aita Santuac governazen Eliza, J.C. errecibiyu ciyun bezela; ta trabaju gucioyetan eztu besce consueloric munduan, ezpada cristauen errespetua ta obediencia Aita Santuendaco; bada Aita Santu anciñagocoac icustean egun tristiac vere Elizan, aimbeste calamidade cristauen ertean /450/ oraín dela 22 urte declaratu zuen S. José gloriosa Patronua E.A. Santa guciarena, ta arren mendean parazen ciyula cristau guciac oquen errezaquin libratura izeteco A. S. etsey gucietatic, ta cristauac verriz beren necesidadetic: ta escribituric dago amazendubenac Aita Santua, sugetazean vorondate osuarequin arren esanera, izeindela ongi errecibitua ceruan. Motivo aundiyan dire hoc cristauac honrazeco S. José gloriosua. (Boletin 1903 pag. 76 et segg.)

2. (Diyo S. Bernardoc) Santuac erreguzendutela gure taco Jen. tronuanda fedesco eguiya obligaturic goudena sinistazea, ta ez izenda ere fedesco /460/ eguiya egunero adizenda santuari erreguzendalaco librazendela bat necesidatebatetic. Santuaoyec favoren audiay ecarcendituzte cerutic mundura. Ja. izenic aiñ ona ezoguzun eternidadetic munduan vicvierzuten yendeac ecirela yoain Jgana. fede audiyaquin erreguzera, ceren ofendiyuzuten Jen. magestadea ucicizquigun santuac acudizeco ayengana gure necesidadetan, ta erregue piadoso batec eguiyendunbezela uztean encargua sirvientebati arrengana acudizentuten guciai emateco escazendutena alaber eguitendu Jac. S. Joserequin. Badaquigu Ja. ona dela, baña ezgara atrevizen franco aldis erre-guzera confianza audiyaquin eguindiozcagun ofensagatic, ta orduen erratendigu *Ite ad Joseph*, zuazte S. Joserengana. /470/

Diyo S. Bernardoc Santu bazuei concedicenduela favorecicea caso bazuetan(n) necesidad bazuetan, baña S. Joseri necesidade gucietan. Diyo Santuonec mundo misericordia ta necesidadec denoc uquizenditugula. Bazuc negarres, bescebazuc miseri oundiyac, bazuc becatuan, besce bazuc peligruan, besce bazuc ecin conformatz Jen. vorondatean; bada eztezagun aztu S. Josec ere izanduciyuela trabajuac ta doloreac, ta denetatic libratusutzen bezela Jesus alaber libratuscogeyubela escazembadiogu confianzarequin, ta gure necesidade aundirena baite azqueneco ordua...

M.S. are(c) escaeraquin obligatuzun bezela milagrubat eguiteco vere Semeari icustean famelibat necesidadean, alaber S. José gure erreza adizean presentazenda bela Jesus ta Mariaren aurrean erremediazeco gure necesi-/480/ dadea.

Gucioc goude obligaturic amazea Ja. gauza guztien gañean ta Ja. onec erratendigu: zueben amoriogatic etorrinizen mundura, ta yagonizen bezela asiciren pensazen modua quenzeco nere vicitza, ta yoanviera izan nizan Egiptora, guero berriz etorrinizen nere echera, arquizenen nere corpua necesidade audiyaquin, eznezaquen lanic egui, nere ama ni bezela arquizenen necesidadean, ta zor diogu mundo vicitza aita S. Joseri, Salvatubazuen bada S. Josec Jesusen vicitza libracean etsayetatic, S. Josec idebaztezuen jornalarequin mantenazembaciyuvera esposo ta arren semea Jesus, hoc necesidadean ez icusteagatic quencenbazuen vere agotic oguiya, franco aldis trabajuric ezubenian yoatembazen limosnara vere fameliya mantenazeco; /490/ nola da posible Santuonec ez conseguiza vere esposa Maria ta Jesusen aurrean ez conseguiza guc beartigun gauza gucia(c), batez ere azqueneco ordurako gracia? Arrazoíñ audiyaquin errandezaquegu *Salus nostra in manu tua est* Ezta falta gure partetic salvazeco confianza S. Joseren baiten (ibid) Ezta lembicico aldiya erratendutena pulpitontatic artu bierdegula confianza audiya Jen. ta Santuaren cergatic nere taco mundo becatua da desconfianza ori. Personabat da gueiztoa, ta ecin sufriyudu bescebat ona izetea, ta beretaco ez-paitouca confianzaric salvazeco, neidu laguna franco ematera infernura. Ez-tela egun asco ecarcenzun paperabatec cerura ecirela /500/ yoaten aurrac besceric, ta bein ta berriz erori dena becatuan badagoquela, confianza gabe ceruraco, ta infernura yoateco obiacela denoc vicitza munduontan neide-

gun bezela, ta infernuartan egoingarela erregueac ta emperadoreac, ta cembatenes gueiztoagocoa izenduden ta orduen autoridade gueyago. Ta orrela esribizenda gouza gueizto franco, ta gour leizenbadute gende aunizc, oztuzenda gendeoyen fedea, ta guerazendire batere esperanza gabe. Ez nere cristauc *millies peccasti*, *millies po(e)nitere*, ta artu confianza aundiya Jen. baieten, ta obligazteco gueyago gure Ja. erregutu dezagun S. Joseri ceñec libratucogeyu necesidate ortatic, desconfianza ortic. Ta oreiñ eldubai-/510/ tire confesioac iduquidezazute presente damutasunarequin ta humildadearequin confesazeco becatuac, baña humiltasuna ortan etorcenbazaicie pensamentura eztela posible zuben becatuac barcatuac izetea quendu bela desconfianza ori cergicat da deabruaren tentacioa; Jac. neidu humillacea, ba Jac. ematendigun humildadean eracustendigu bierdegula artu confianza aundiya. Prestaturic egonguitecen bada honrazeco Ja. ta ezaguturic obligaturic goudela S. Joseri erreguiza confianza aundiyaquin acudiyu dezagun necesidate gucieratic libratuac izeteko, batezere azqueneco orduan, denoc gozazeo Jesus, Maria ta S. Joserequin batean ceruan. Amen. /520/

## ABREVIATURAS

- A.S.: Aita Santua  
C.M.: Christau edo Christio Maiteak  
E.A.S.: Eliza Ama Santua  
J.C.: Jesu Christo  
Ja.: Jangoikoa. Jac.: Jangoikoak  
Jm. M. edo J.M.: Jangoikoaren Magestadea  
M.S.: Maria Santisima  
S.S.: Spiritu Santua  
Xm. edo Xtorem. M.: Jesukristoren Magestade

## LABURPENA

Ultzaman jasotako euskal testu argitaragabeak plazaratzen dira lan honetan. Lehen partean XIX. mendeko lehen laurdenean burututako hiru izkribu datozi Suarbeko elizan jasoak. Bigarrenean, mende honen hasierako bi sermoi aurkezten dira, Larrantzarko parrokian dagoen bildumatik hartuak. Ultzamako azpieuskalkiak azken bi mendeetan ukantzen dituen aldaketan lekuko dira.

## RESUMEN

El trabajo presenta algunos textos inéditos vascos procedentes de Ultzama. En la primera parte se incluyen tres documentos del primer cuarto del siglo XIX hallados en Juarbe. La segunda entrega consta de dos sermones pertenecientes a una extensa colección de la parroquia de Larrantzar. Constituyen una muestra de la evolución que ha experimentado el subdialecto en los dos últimos siglos.

## RÉSUMÉ

Le travail présente quelques uns des textes basques inédits provenant d'Ultzama. Dans la première partie, sont inclus trois documents du premier quart du XIXème siècle trouvés à Juarba. La seconde partie présente deux sermons appartenant à une longue collection de la paroisse de Larraintzar. Ils constituent un aperçu de l'évolution que le sous-dialecte a expérimenté au cours des deux derniers siècles.

## SUMMARY

This paper presents some unpublished Basque texts from Ultzama. In the first part three documents from the early XIXth century found in Juarbe are included. The second part consists of two sermons belonging to a large collection from the Larraintzar parish. They are a sample of the evolution undergone by the subdialect during the last two centuries.